

Samer S. Hassanen kronikak

Haider eta Omar gizon bat, bi izen

Gero eta taberna gehiago dago Bagdaden, Irakeko hiriburuan. Langabezia izugarri hazi da azken urtean, eta langile ohiek nonbait igaro behar dituzte ordu horiek guztiak. Bestalde, xiitek nahiz sunitek utzitako dendak eta lokalak birziklatzeko modu errazena da hau. Ura irakiteko sua, tea, eta hortxe taberna!

SAMER S. HASSAN

Argazkiak: CPT

AZKEN KRONIKAN aipatu nizuen lana nola eta zergatik utzi behar izan dudan. Baina ez naiz tabernazalea, ezin ditut jasan gune hauetako elkarriketak; gerra etengabe gogora ekartzen duten solasaldi etsigarriak. Gauzak honela, denbora asko, gehiegi, ematen dut orain etxetik ia atera gabe, eta leihotik begira. Duela hilabete bat, atentzioa eman zidan nire etxe azpiko taberna gaueko 20:00etan oraindik irekita ikusteak. Jakingurak jota, jaistera erabaki nuen.

– Hemen egiten dut lo –argitu zidan zerbitzariak. 40 urteko gizona zirudien, eta nabarmena zen etsipena bere aurpegiaren. Izena Haider zuela esan zidan, baina besterik ez.

Harrezkero, askotan jaitsi naiz Haiderren tabernara, te bat hartzeko aitzakiaz. Hitz pare bat baino ez dugu trukatu gehienetan, baina hain maiz elkar ikusita, konfiantza handituz joan da. Atzo, arratsaldeko 16:00etan, neu nintzen bezero bakarra. Intimitatea lagun, tabernan lo egiteko arrazoiaz galdetu nion Haiderri. Etxea galdu izana zela arrazoia erantzun zidan. Baina Bagdadeko Al Jadid auzokoa zela entzutean, bere azalpena oso arraroa iruditu zitzaiz-



Meskitara bidean, Adhamiya auzo sunitan.

dan. Auzo xiita da Al Jadid, baita “Haider” izena ere. Joan den udaz geroztik, xiitek sunitak kanporatu ohi dituzte, eta ez euren konfesio berekorik. Honelaxe adierazi nion Haiderri, diskrezioaren mugak gainditzen ari nintzela ohartuta aldi berean.

– Haider ez da nire benetako izena –erantzun zidan, begiak niregan finkatuz. Omar, hala du izena, alboan eseri zen segituan, eta bere ahotik entzun nuen datozen lerrootako

historia etsigarria. Honako hau duzue auzo xiita honetan ezkutuan bizi den 29 urteko sunitaren biografia:

“Hamar urte nituela, aitak eskolatik atera ninduen. 6 anai-arreben artean zaharrena nintzen eta etxean diru premia handia zen. Beti gose ginen. 18 urterekin soldaduskara joan behar izan nuen. 6 urteko zigorra izan zen eta horietatik ia 3 kartzelan eman nituen. Gobernuaren kontra delitu politikoa egotzi zidaten. Saddami buruzko txiste bat kontatu nion gelakide bati, eta honek salatu ninduen. Horixe izan zen dena.

2002ko udan, administraritzan neukan lagun on batek kuarteletik alde egiteko gomen datu zidan. Antza, ofizialetako batek bere etxera eraman nahi ninduen, bi urtez bertako zaindari izateko. 6 urte neramatzan soldadutzan eta jada hondoa jota nengoen. Ihes egitea erabaki nuen, jakina.

Handik urtebete eskasera, AEBetako tanke hura Saddamen estatua botatzen ari zen. Apirilaren 9a zen, irakiarrok inoiz ahaztuko ez dugun data. Sentimendu benetan gazi-gozaok izan nituen. Batetik, amerikarrak nire herrialdea inbaditzen ari ziren. Bestetik, nire etengabeko ihesaldia bukatutzat eman nezakeela pentsatu nuen. Negar egin nuen, tristura edo pozagatik izan zen ez dakit. Agian biengatik.

Hiru hilabete beranduago lanpostu oso on bat aurkitu nuen Italiako enbaxadan. 300 dolarreko soldata neukan, nire bizitzako altuena. Tamalez, Iraken gauza onekin gertatu ei legez, ez zuen luze iraun. Izan ere, halako batean postontzia ireki eta gutun-azal arraro bat aurkitu nuen. Barruan, bala bat eta gutun bat: ‘Benetako musulmanek ez dute Alaren etsaizentzat lan egiten’ zioen notatxoak.

5 egun baino ez ziren falta nire bigarren soldata kobratzeko, baina ihes egitea erabaki nuen, berriro ere. Saddam diktadore ohia, beste 1.000 Saddamek ordezkatu zutela pentsatu nuen orduan. Iraken egorak okerrera joko zuelakoan, Siriara alde egitea erabaki nuen.

Damaskon soldadutza garaiko lagunak nituen eta lan bat lortu zidaten taberna batean. Urte eta erdi zerbitzari neramala, euretako batek berekin Alemaniara emigratzea proposatu zidan. Bere ezagun batek ba omen zekien nola egin eta lagunduko zigun.

10 egun eman genituen bidaia prestatzen. Turkiara joango ginen lehendabizi; handik Greziara, eta arrotzak egiten zaizkidan hainbat herrialde zeharkatu eta gero, Alemaniara azkenik. Erraza omen zen.

Turkiako mendebaldera iristean, Osman-ek, Grezian sartzen lagunduko zigun kontaktuak, pasaporteak eskatu zizkigun. Greziatik oso gertu geunden eta gauez ekin genion bideari bere autoan. Errepidean ordu dezente igaro ondoren, Osmanek hotel ttipi batean utzi gin-

Haider edo Omar, tabernari sunita.



tuen. Hura izan zen tipoa ikusi nuen azken aldia, gure diru eta pasaporteekin ospa egin baitzuen. Baina okerrera zen Grezian ere ez geundela, Turkiako hego-mendebaldeko herrixka batean baizik!

Azkenean, kurdu batek Dohuk-era (Irakeko Kurdistanera) eraman gintuen, eta handik Bagdadera bueltan, esku hutsik.

Bi urte kanpoan igaro ostean, hiria oso aldatuta aurkitu nuen. Biolentzia sektarioa populazioa auzoz auzo aldarazten ari zen. Milizia xiitek ez zuten sunitarik nahi euren guneetan, eta alderantziz. Tamalez, gure etxea ez zen salbuespena. Gure auzoa gehiengo xiitakoa zen, eta gelditzen ziren sunita urriak akabatzen ari zen jada Al Mahdiren milizia xiita.

– Arazo handi bat dugu –esan zidan aitak–, bizirik jarraitu nahi badugu, zure izena aldatu behar duzu! (“Omar” suniten izen-ikonoa da, “Haider” xiitena den bezala).

Haider izena hartu banuen ere, segituan zabaldu zen sunitak ginela. Etxea uzteko lehen abisua errefusatzean, nire anaia, Mehmet, akabatu zuten xiitek, eta ni hurrengo nintzela ohartarazi zidaten. Azkenean, auzo sunita batera ospa egin genuen baina bi nortasun agiriak kontserbatu ditut: Omar izenekoa nire etxera joateko, eta Haider, auzo honetako tabernan lan egiteko.

Zergatik egiten dudan lo tabernan? Etxeko errentagatik 300 dolar ordaindu behar ditut hilero, eta nire aitari ere lagundu behar diot. Tabernan lo egingo ez banu, 7 dolar gastatuko nituzke garraioetan egunero. Ezingu nuke, inolaz ere”. ■

“Etxea uzteko lehen abisua errefusatzean, nire anaia, Mehmet, akabatu zuten xiitek, eta ni hurrengo nintzela ohartarazi zidaten”

Omar

www.argia.com/argia-astekaria/2081 eta www.argia.com/argia-astekaria/2091 helbideetan, Samer S. Hassanen aurreko kronikak.